

GOBERNU BATZARRA

2014. 05. 16

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko maiatzaren hamaseian, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Ibai Iriarte San Vicente	
Zinegotziak:	
Lore Agirre Zipitria	
Asier de los Rios Soraluze.	
Iñaki Xabier Irazabalbeitia	1.- Aurreko akta onartzea.
Fernandez.	2.-Jose Luis Gimenez Pereiraren eskaera.Euskal Herria plazan merkatua jartzeagatik pasatako likidazioaren ordainketa zatikatzea.
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	3.- 2014ko Bizitza Aseguru Kolektiboa berritzeko poliza.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	
Paulino Alonso Eraso.	4.-13/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko maiatzaren 9an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Euskal Herria plazan saltokia jartzeagatik pasatako likidazioaren ordainketa zatikatzea.

2014ko apirilaren 14an J.L.G.P.-k Euskal Herria plazan merkatua jartzeagatik pasatako likidazioaren ordainketa (1.146,60 euro) zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorrak, Zergak eta Udal Zuzenbide Publikoaren bestelako sarrerak kudeatzekoak, bere 2. eranskinean, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: “**Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.**”

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- J.L.G.P.-ri Euskal Herria plazan salmenta postua jartzeagatik pasatako likidazioaren ordainketa (1.146,60 euro) 12 hilabetetan zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Adieraztea zatikatzearen ondorioz ordaindu beharreko kuotak edo plazako postuari aurrerantzean dagozkionak ez baditu epe barruan ordaintzen, postua jartzeko baimenik gabe geratuko dela eta eskubidea beste bati emango zaiola. Horrela ere, ordaindu gabeko kuotak, legezko prozedura erabiliz, kobratu ahal izan zaizkio.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

3.- 2014 Bizitza Aseguru Kolektiboa berritzeko poliza

AXA SEGUROSEK 2014ko udal honetako langileen Bizitza Aseguru Kolektiboa berritzeko poliza bidali du.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udal honetako langileen 2014ko Bizitzako Aseguru Kolektiboa ordaintzea, diru kopurua: 40.849,83 €, ALKORA, E.B.S. S.A.k, Caja Laboralen daukan 3035-0056-43-0560027002 zenbakiko kontu korrontean sartuz.

BIGARRENA.- Interesatuei honen berri ematea.

4.- 13/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailtzak **13/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **256,421,09** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **13/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA